

Denok gara anitzak, alde askodunak, eta guztiok bizi izan ditugu bizitzaldi desberdinak bakoitzaren izaeraren eta bizitzako zirkunstantzien arabera, nola animaliek lumaberritzen direnean lumaje zaharra kendu ohi duten eta berriaz geratu ohi diren; baina hori bai, ez hain erraz eta ez hain osoki.

Ez hain erraz, Nemesio Etxanizen kasuan bezala, bizitzaldi horiek norberak aukeratuak baino gehiago besteek ezarriak izan zirenean, eta ez hain osoki, gure gogo-lumajeak azal gogorragoak izan ohi direlako, nortasunari atxikiagoak, kentzen edo estaltzen zailagoak.

Azkoitian jaio zen 1899ko abenduaren 19an, "erdi kalean" edo kale nagusian. Jaioterrian eta bere familiaren altzoan eman zituen lehenbiziko hamaika urteek itxuratu zuten Nemesio estrainekoz. Familian giro euskalduna jaso zuen, erlijiosua,

integrata erakoa hortxe-hortxe, kontuan izanik aita bigarren alkate izan zuela behin baino gehiagotan Ramón Nokedal-en partidutik. Abarketa-lantegia zuten bizi ziren etxe azpian eta esan liteke, bere aldirako, ondo biziak zirela. Gurasoek bazituzten

1

Nemesio Etxaniz (1899-1982).



senideak moja eta fraile, eta alde horretatik, seme-alabak Elizaren magalera bideratzen emankorrak izan ziren: hamar senideetarik bost eman zitzaizkion erlijio-bizitzari, Nemesio eta beste anaia bat apaiz, eta hiru arreba moja.

Jaioterria, aldi hartan, beste euskal herri asko bezala, erlijiopean bizi zen, moral kristauaren arau estuetan, eta orain baino berezi-aire gehiagoz. Moral estuari dagokionez, ez da ahaztu behar Azkoitia eta Azpeitia Loiolako Santutegiaren eragin-eremuan daudela, eta orduan, bertako jesuitek itzal ikaragarria zutela. Berezi-

-aireari doakiola, aski zehatz agertu dizkigu *Izotz*-kandelak eleberrian orduko denborapasa arrakastatsuenak, orduko jende xebleen xeblekeriak, eta oro har, herrian nagusi ohi zen izua sexu-gorabeherekiko eta atzerapena gizarte-auzietan. Apaizak eta lantegi-nagusiak ziren jaun eta jabe herrian. Herritarrak, aldiz, behartsuak, xaloak eta umoretsuak.

Artean galtza motzak jazten zituela aldegin bazuen ere herritik eta familiagandik, familia-maitea eta herri-maitea izan zen hil artean, eta biak ere gogoan iltzatuak izan zituen.



Azkoitiko herria XX. mendearen hasieran.



Azkoitiko Kale Nagusia XX. mendearen hasieran.
Ezkerrean, buruan fardela daramanaren ondoko
etxean igaro zuen haurtzaroa.

Nemesio Etxanizen gurasoak.



COMILLAS-EN APAIZTU

Santanderreko Comillaseko Unibertsitate Pontifizioan sartu zen hamabi urtetan eta hamabi urtetako. Galtza motzak erantzi eta sotana jantzi. Guztiz bestelako girora aldatu. Jakina da gisa honetako erakunde osoetan, jan, lo, ikasi eta bizi toki berean egin ohi diren tokietan, nola gertatzen den Ni-aren birmoldaketa. Isiltasun osoko gogo-jardunak, disziplina eta laztasun gogorreko bizimodua, mundu bekatuzkoaz erantzi eta santutasun-bidean aurrera egitearren ezarriak.

Nahiz bere garaian hirurehun bat ikasleetarik herena euskalduna izan, gaztelania eta latina, latina eta gaztelania ziren hango hizkuntza nagusiak; hizkuntzaz etenda, familiatik etenda eta herritik ere bai. Baziren banaka batzuk, kasu, Segura kardenala, apaizgaitegiko hamalau urteetan kanpora bat ere atera ez zirenak. Nemesio oporretan jaioterrira joaten zen baina hala ere, garbi dago beste Nemesio Etxaniz bat atera zela handik, apaiztua bera eta bere eliztarrak zerura bideratzeko prestatua.



Eserita, gorbata eta trajeaz aita; Nemesio bera zutik, eskuinetik bigarren. Comillaseko apaizgaiak. Azkoitiarrak gehienak.



Meza berria eman zueneko argazkia, seguru asko. Sotana eta sotanagaineko beztiturik, eskuan meza-liburua duela.



Aitzol. Ikaskide izan ziren Comillasen.

Bere bizitzako bigarren aldi honetan sortu zitzaion euskaltzaletasuna. Ikaskide zaharragoko batek esan zion nola Asteteren dotrinako euskara oso kaskarra zen. Batez ere, jaioterri eta apaizgaitegiko hizkuntza-aldaketa bapatekoaren eraginez bezala edo, eta ez beste batzuen kasuan bezala, ia-ia eztanda moduan, kasu, Nemesiok lagun minak izan zituen Jokin Zaitegi eta Andima Ibiñagabeitiarenean. Badirudi horiek errebelazio modukoren bat izan zutela: gure aberria Euzkadi da eta gure hizkuntza euskara. Nemesioren kasuan ez. Aitari entzundako elezahar

bat idatzi zuen 1923an, *Argia*-k argitara ziona, baina besterik ez. Dena den, euskal eta abertzaletasunaren hazia ereina zuen.

Delako hazi hau ez zen hilko, fruiturik umoenak gerraondoan emango zituen. Apaiz izaera ere ez zuen utziko, fede-zalantzen eta grina mundutiarren eztenak gorabehera, lagunaren sekularizazioak eta Elizaren hierarkiak sortu nahigabeak gorabehera, eutsi egingo zion gaztetako urterik urdinenetan jantzitako sotana beltz luzeari.

Orixe eta Lizardi. Maisutzat jotzen zituen.



Elezahar honekinxe estreinatu zen euskal letretan.



BERGARAN MUNDURATU

Arabako Urarten praktika-urtea igarota Bergarara bidali zuten, Santa Marina parrokiako apaiz-laguntzailetza kargurako. Beste gogo-aldaketa bat jasaten du hemen. Lehenbizikoan, sufritu egiten zuen eliztarrek dantza lotuan lasai asko dantzan egiten zutelako, nahiz berak, apaizak, gogor aritu pulpitutik horren kontra. Gero, moral puritano estu horretatik askatzen hasten da, seigarrenekoan ere bekatu guztiak astunak ez direla eta moral kontuan lasaitze-bideari ekiten dio, nahiz eta beti ere barru-estu izateari jarraituko dion.

Ezagutzen du bere larrupean giza maitasuna eta Bergarako Santa Marina parrokian berak sortutako Luistarren Kongregazioko gazteak eta Mariaren Alabetakoak aholkatu beharrean gertatzen da, eta garai hartan batez ere apaizei hainbeste lan ematen zien seigarren manamenduan ezingo ditu ba Comillasen ikasitako moral estuegian hezi. Buruhaustek emango dizkio lantegi honek: zenbateraino lasaitu morala, zenbateraino eutsi moral ortodoxia zorrotzari. Erroman moralista aipatua zen Aita Vermeersch-en kontseiluak izango ditu bidelagun.



Begarako Santa Marina. Teoriatik praktikara igaro zen hemen. Apaizgintzan eta euskalgintzan buru-belarri aritu zen.

Kongregazioetako gazteontzat euskal antzerkiak inguratzen eta moldatzen ere ditu, eta zinea ere ematen die Azi Ona gurasoen elkarre katolikoak zuen aretoan, moral kristauari azpirik jango ez zion zinea.

Moralaren inguruko buruhaustek gorabehera, abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna parekatsu ez ikusteak sortutako kezka alde batera, badirudi aski zoriontsu izan zela Bergaran.

6 Euskaltasuna suspertze aldetik, euskal antzerkiez gain, artikuluak idazten ditu, Donostiako *El Día*-n argitaratzen dizkiotela. Beldur da abertzaletasunaren gorakadari euskaltzaletasunak jarraitzen ez diolako, bata gabe bestea ez baitu ulertzen ez onirizten.

Bergaran apopilo egon zeneko etxeak.



GERRAKOAN BARRUA KRASKATU

Gerraurrean Eliza Katolikoa eta moral kristaua zainduz euskaltzaletasuna suspertzea eta euskal aberria zerbitzatzea osagarriak ziren. Herrietan karlistak eta integrista monarkiko espainiarzaleak beheraka eta nazionalista jeltzaleak goraka zihoazen. Sozialismoa-eta, berriz, bereziki hiri eta industria-herri handietako kontua ziren gurean.

Gerra etortzen da, batez ere Nafarroatik Gipuzkoa aldera, erreketeez ekarrita, eta hauek beste herri askotan bezala Bergaran sartzen dira. Gorriak eta nazionalistak suntsitzeko Espainiaren eta Gurutzearen bandera altxatu zutenek bortxaturik, Nemesio Etxanizek Burgosera joan behar izan zuen. Han zigortu egin zuten, *a divinis*, funtzio sakratuak burutzea galarazi, gero Gasteizera, laster bere anaiarenean, Deban kokatu arte. Lauzirika gotzain frankistarekin ika-mika gogorra izan zuen, Erromara jo beharrean gertatu zen. Zumaian 1940an Aste Santuz egin predikuagatik salatua izan zen.

Nazkatu eta apaiz jarraitu arren eten egin zuen Gotzaindegiarekin, Estatutik kobratzeari utzi egin zion, eta harrezkero mezak ematetik bizi izan zen.

Zenbat fusilamendu eta lapurreta, batez ere, irabazleek galtzaileei. Gorrotoa nonahi. Gorroto izugarria euskararekin zerikusia zuen ororekiko irabazleek erakusten zutena! Ehun milatik gora euskaldun erbestera. Beste hainbeste eta gehiago espainol, asko euskal gorrotoko, Euskal Herri isildu eta sarraskitura. Euskal Herria, Salvatore Mitxelenak kantatzen zuenez, hiltzat jotako herri bilakatua eta kalbariora bortxatua. Eta batere

Erreketek frankistengandik ihesi, Burgosera egin behar izan zuen, eta hemen meza emateke egon, nazionalista izateagatik zigorturik.



botererik gabe, neurrigabeko etorkin-
etorreraren aurrean nortasunari eutsi
ezinik.

Espainiako gotzainek mendetasuna
erakusten zioten Franko buruxkilari
jendaurrean egiten zen ekitaldian.
Goztainen apaizak edukitzen zituzten
mendean, nazional katolizismo
espainolaren aurkako edozein
agerraldi zorrotz gaitzetsiz eta
zorrotzago debekuplean ezarriz.
Nemesio Etxanizek ezin zuen inondik
inora mendetasun lotsa emangarri hori
onartu.

Gerraurrea joana da, bere parrokiatik
haizatua da eta ezin du lehen bezala
jokatu, lehen erlijioak zuen garrantzi
gehien, gerraondoan besterik da.
Euskaldun bizi-nahiak akuilaturik,
aurrerantzean euskalgintzari eta
euskaldunen eskubide zapalduak
aldezteari emango dizkio ordurik
gehienak. Beste batzuek, kasu,
Krutwig, Villasante, Orixe, Zaitegi,
Andima, euskara kultur hizkuntza
bihurtzeari emango diote lehentasuna;
Nemesio Etxaniz, aldiz, gehiago letra
gutxiko euskaldunak euskaldun
iraunarazteko eginkizunari lotuko zaio.

Euskal antzerki-taldeentzat gidoiak
prestatu, abesti modernoek euskal
hitzak ezarri, olerkiak eta abestiak
ondu, irratirako gidoiak eta
aldizkarietarako kontakizun atseginak
burutan ateratzen enplegatzen da.
Baita, euskararentzat bide berriak
urratzen ere, betiko aszetismoa utzi
eta euskal erotikaren baso sasitsua
irudi fin eta sentsualez garbitzen.

Lantegi hau ezin izan zuen egin
agintari zibilen kontrakarrarekin topo
egin gabe. 1948an hasi zen
dagoeneko, agintari zibil frankistei
gutunketan, euskaldunen eskubide
oinarrizkoenen kontra burutu
bidegabekeriak bere larruan pairatuak
salatzen. 1957an hasi zen

Lagunekin umore ederrean. Ezker-ezkerrean
Don Manuel Lekuona, txokorra eskuan hizketan
ari zaiona Andoni Mari Labayen.



gobernadore zibilekiko gutunketan, lehenbizi, euskal kulturaren aldeko lanean ezartzen zizkioten oztopoak salatze aldera, eta behin Jose Antonio Agirreren heriotzaren ondotik, eta ETaren sorreraz gerokoan, atxilotu eta tratatu txarrak jasandakoen aldeko defentsan. 1962an auziperatua izan zen, eta 1970era arte iraun zuen erregimen frankista bidegabearen aurkako gudu honetan.

Oinazerik bizienak, ordea, ohi denez, gehien maite zituenen aldetik jaso zituen. Literatur euskararen batasunak nonahi ere liskar, ika-mika eta nahigabe asko sortu ditu eta gurean ere bai. Nemesio Etxaniz, Orixe, Zaitegi, Andima eta beste asko bezala, Azkuezale eta gipuzkera osotuaren aldeko azaltzen zen. Ez zuen uste euskal ikastolak indartu arte batasuna ezartzea komeni zenik, eta Arantzazuko erabakiek, eta guztien gaineratik Don Manuel Lekuona Euskaltzaindiaren burutzatik baztertzeak berebiziko atsekabea sortu zion.

Hori nahikoa ez zuela, gazteen sozialismo eta komunismorako joerak, 60ko hamarkada bukaeran nahiz 70eko lehen urteetan goritu zenak eten egin zuen bere zubigintza-lantegitik, abertzale zahar kopeta zabalekoak eta gazte zentzudunak elkartu nahiko langintzatik.

Gozotik baino gozogabetik gehiago izan zuen mundualdi honetako azken urteetan; halaz guztiz, gaina hartu zien bere barne-gatazka eta sofrikarioei. Jainkozale eta abertzale-euskaltzale porrokatu hau 1982ko urtarrilaren 27an hil zen Donostian, azken 30 urtetan bizitako hirian.



Karmeldarren eliza ondoan bizi izan zen 1954tik hil arte.

10

Jainkozale eta abertzale esan dugu. Bi hauek oso loturik egon dira gure artean sekularizazioa nagusitu den arte Sabino Aranak lotu zituelako, dotrina nazionalistan batetik, eta hori baino eraginkorrago, bere bizitza aberriaren alde eskaini zuelako bestetik.

Evangelista de Ibero, Aitzol, ugari izan dira apaiz edo erlijioso sutsu eta jeltzale suhar. Politika praktikoari dagokionez, badakigu onesten zuela Jose Antonio Agirre buru zela, alderdi jeltzaleak gerraurrean jokatu zuen

politika estatutuzalea; eta are ontzat zuela Alderdiak 1956an egin Lehen Euskal Mundu Biltzarrean onartu politika, hots, indar demokratiko espainiar guztiak batera jokatzeari diktadura eraistearren.

1961ean lagun minenei aitortzen zien euskaldunek juduek egin aurretik beste irtenbiderik ez zutela, hau da, euskara indartu eta iskiluak zorroztea estatu demokrata izenekoak eta Eliza Katoliko izenekoak aintzat hartuko bazituzten. Geroago,

Izugarri miretsi zuen. 1953an, bere heriotzaren 50. urtemugan, olerki herrikoi hunkigarria eskaini zion.



Pariseko Lehen Euskal Mundu Batzarrean, albora begira, betaurreko, gorbata eta trajeaz. Jose Antonio Agirre atzerago.



Ghandiren jokabidearen goraipamenak egin zituen, beti ere bidezkoago dela indarkeriaren aurrean tinko baina armarik erabili gabe ihardukitzea.

Ez zen, ordea, alderdi-politikara dedikatu, euskal zibilizazioari iraunarazteko lanera baizik. Gogaide zituen beste askok bezala, Nemesio Etxanizek uste zuen Euskal Herriak bere iraganean aitzurtu behar zuela, bere historia hein handi batean ezezagunaz jabetu, herri arrotzek ezarri ikuspegiak eta jokaerak atzendu eta geurean barneratu. Euskal


herrietako jauntxokeria, gizarte-auzietan ohi zen atzerapena salatzen zituen; halaber, apaizkeria, apaizen gehiegizko aginpidea eta puritanismoa gaitzesten, baina aldi berean sinesmen eta bertute kristauetan oreku eta tankeratu gizartea zuen miresten eta etorkizunerako ere horixe opa zion Euskal Herriari.

Uste sendo honexek sorrarazi eta gidatu zuen bere euskaldun eta giza eskubideen aldeko gutungintza politikoa, eta halaber ihardun literario guztia.

11



Nemesio Etxanizek Valencia Remón gobernadoreari eta honek berari egindako gutunetakoak.




Valencia Remón gobernadorea.



Bereizi behar ditugu enkarguzko lanak eta bihotzak agindutakoak. Enkarguzkoetan sartzen dira, bateko, benetan egiteko agintzen dizkietenak, irratorako gidoiak, adibidez; baina baita, besteko, berak egin beharrezkotzat jotzen zituenak ere, kasu, euskara ikasteko metodoa. Bihotzak agindutakoetan berriz, barne-barnetik ateratzen zaizkionak, literaturaren ikuspegi erromantikoz, errai-inplikazio handiagokoak. Bereizketa honekin ez dugu, hain zuzen, lanaren balioaren arabera Nemesio Etxanizen obra sailkatu nahi; enkarguzkoa izan

daiteke, noski, bihotzak aginduta burutua baino hobea, eta alderantziz.

Gazte jendeari erdal abesti modernoek tira egiten diotela ikusi eta modako aireei euskal hitzak ezartzen hasten da; tradiziozko euskal kantez gain: tango, rumba eta fox-trot-ak euskal hitzez janzten ditu *Kanta-Kantari* kanta-bilduman, kanta modernoek leku hauta eginez. *Ez dok amairu* taldearen sorreran hor ageri da apaiz modernoa, Mikel Laboa eta gainerakoekin batean tradizioa eta modernia egoki uztartu nahian.



Urtetako euskalgintzaren onaurkiak hartu, eta herentzia gisa bildurik eskaini dizkigu.

Hurrengo, ikastolako haurrentzat prestatuko zituen abesti samurrak, eta umeengana joko zuen abestiak irakastera.

Euskal erotikaren basoa sasiak eta laharrek hartuta zegoela? Bada, olerki erotikoak burutzera jarriko zen, hurreko zenbait lagun iskanbilaraziz. *Griñen* loa izenekoa lekuko.

Antzerki-taldeek euskal antzerkian behar zituzten, eta horiei laguntzearren prestatzen ditu *Izeko Aberatsa eta Irulearen Negarra*. Badaki euskalduna irakurle alferra

bezain entzule gogotsua dela. Donostiako Jarrai Antzerki Taldekoak hor dihoazkio itzulpen eske, kasu, O'Neill dramagile amerikarraren obraren bat euskaratzeko; bai honek euskaratu ere.

Hurrengo, Arrate, Loiola edo Segurako irratiak langai eskasean dabiltzala eta, haientzat gidoi laburrak prestatuko ditu. Edota Txillidaren omenezko liburua itzuli behar dela eta hura itzuliko du. Askotan hutsean. Beste batzuetan hango edo hemengo lehiaketetara aurkeztuko ditu bere idazlanak. Euskal aberriaren aldeko lanean.



Beste gutako asko bezala,
Donostiaren edertasunak
txunditu egiten zuen.
Hortik olerkia.

Hainbeste konpromezu eta derrigorrezko lanen artean itoa, hala ere izango du lanarterik bokazioz, literato-bokazioz idazteko. Berak onentsuentzat jotzen zituen olerkiak poesian, eta hitz-lauzko lanik aipagarrienak bereiziko ditut.

OLERKIAK

Zerua goibel,
aizea naasi;
argia, ekaitz-bildur
joan zan igesi.
Argatik gure maite-ustek,
-zorion-azi-
gau aretan
ziran ausi!

Xuxurlatu egiten dizkigu hitzak,
erretorika harro azalutsetik ihesi;
zintasunez, eta poesia esentzial,
funtsezkorako isuri oso markatuz.

Erromantizismoak leku handia du,
Ni-aren poesia da. Ni minberatu,
hautsia. Gatazkatsua, maiz, amodio
gizatiar eta jainkotiarren artean
zabuka dabilena, borroka bizian; fede
kristauean erroturiko idealismo
itxaropentsuaren eta bizitzea
suertaturiko aldi historiko garratzek
eragin fede-zalantza eta geroarekiko
larriminaren artean.



Garaiko kanta modernoek euskal letra ezarri zien, noiz eta 1951an. Aitzindari izan genuen.

Argi galderaz
 urratutako
 nere gau-bidetan noa,
 itxas-ogerik
 beiñere ez duken
 ibai-uretan itoa.
 Nork daki nere
 etor-egunak
 nun luken bere zantzoa
 Nun duke nere
 zalantza onek
 azken-portuko leloa?

Maite galdaz sortu itunan
 amaika olatu nastu.
 Ur mendietan iraulka beti,
 galdu niñan nere zentzu.
 Ta orain... itxas irakin ontan,
 -ez ontzi ta ez erruki,-
 bakar-bakarrik gelditu gaitun
 burrukan, ekaitza ta ni!!

Erabat harturik, poesia honek ez du
 zerikusi handirik Europako lirika
 modernoaren ezaugarritzat jotzen
 direnekin. Aro garaikideko olerkiak
 komunikazioaren familiartasunari ihes
 egin nahi dio, bizipenak, sentipenak
 eta zenbaitetan, are poetaren Ni-a ere
 alde batera uzten saiatzen da, delako
 Ni honek ez duelarik poeman
 norbanako bezala parte hartzen baizik
 eta hizkuntzaren erabiltzaile soil gisa.
 Nemesio Etxaniz izpiritu horretatik
 urrundu egiten da. Ez dira alferrik
 pasatu bi gerra, Espainiakoa zein
 mundukoa. Espainian bertan ere,
 Nemesiok idazten duen garaian olerki
 gizatiarragoak, sentimenez eta
 bizipenez zamatuagoak dira gailen.

15



Oskorri-k 1997ko udan bere Pub ibiltaria-n
 Nemesio Etxanizen Antoni ta Anton abestia
 interpretatu zuen.

Guztien gainetik euskal tradizioaren kateari lotzen zaio, baliabide poetikoetan gerraurreko Lauaxetak eta batez ere Lizardik erabiliak murriztera jotzen du, lehenago esan bezala, funtsezko direnetara mugatuz. Horretaz gain, esango nuke bere erara hogeitaz urtetan gertatu gizarte-eta mundu-ikuskeraren aldaketa islatu nahi dituela era honetako poemagintzarekin.

Ez al dator horretara izpirituzko striptease gisako hori? Ni mindu eta borrokari horrek ez al du ispilu izan nahi, Nemessio Etxanizen irudia lerro lodiz marraztua ageri bazaigu ere?

Tximistak
izenpetu du ekaitza.
Trumoa,
aren morroe oska.
Deadar egin zun:
'Itxasoa! Itxasoa!'

Lehen adierazi dut, erabat harturik, ez duela lirika modernoaren izpiriturik baina ttanttoak baditu, baldin forma eta edukiaren arteko batasunean sinesten badugu, eta olerki laburren etan egiazta dezakegunez.

Sei burni-ari zintzilik
Pin!
pon!
pun!
Lau tanta belarrietan.
Istil-otsa gogoetan...
Ire kolkoa,
Udaberri den loretan.



NARRAZIOAK

Narratibaren aldetik 1960-1964 bitartean idatziriko ipuinak eta bi eleberri labur dira aipagarrienak. *Suge lana* izeneko ipuinean emazte batek, beste gizon batenganako grinak itsuturik, senarrari saldukeria egiten dio eta honen ondorioz heriotzera kondenatzen dute. Hori gerrak

gizartea bitan zatitutako ingurunean, senarra alde batekoa denean eta maitalea bestekoa. Gutun-sail moduan dago eratuta narrazioa; pertsonaien deskribapenean, psikologian, jokabideen azterketan ez du sakontzen, oso eskema manikeora hertsituta dago eta Nemasio Etxanizen usteak gogoan, esan liteke bere ustetan gerrak ekarri zuen hondamendi morala erakusteko egokia iritzi ziolako jo zuela begiz kontakizun hau.

Beste ipuin interesgarri bat *Euria ari du* deritzana da. Lortu zuenagatik baino areago garaiko korronteetara hurbiltzeko egindako ahaleginagatik. Ohargarriena zera da, narratzailea kamera baten begiak ikus dezakeenera mugatu egiten dela. Bere ikusmen-eremutik kanpo



Bizirik zela, sor zezakeen eskandaluagatik ez zuen argitara eman. Horretaz gain, gobernadore zibilei egindako gutunak dakartza Iñaki Segurok prestatutako liburuak.

dagoena propio baztertzen du diskurtsotik. Beste narrazioetan Nemasio Etxanizen nor narraitiboa gauza sentitzen da pertsonaien barnean sartzeko, beren arrazoibideaz jabetzeko, juzgatzeko, hemen ez. Robbe Grillet eta *nouveau roman*-en eragina du. Nobela tradizionaleko oinarriak eraitsi eta bestelakoak eraikitzea zuen xede literatur mugimendu honek. Saialdi mugatua baina, dudarik gabe, merituzkoa 1962an.

Ameriketan galduak eleberri laburrean anekdota honakoa da: euskal baserri bateko gurasoek beren alabarentzat ezkontza prestatzen dute, eta honek ondorio gaiztoak ekartzen dizkio delako alabari. Gauzak aski okertzen badira ere, azkenean Jainkoaren eskuak eta euskaldunon "betidaniko sinesmena"-k bere onera ekarrarazten dituzte. Bere buruari dagokionean Nemasio Etxanizek zalantza ugariren lekukotasuna ematen digu baina herriari dagokionean, Euskal Herriak betidanik izan duen edo gehientsuenek egotzi dioten mundu-ikuskeraren balioan, tinko sinesten zuela dirudi, gisa honetako narrazioen arabera.

19



Zeruko Argia eta Euzko-Gogoa aldizkariaren azal bana.

Izotz-kandelak eleberrian aldiz, askoz zalantziago eta beitz-ikusberago ageri da. Eleberri honen ideia nagusia 1954rako buruan zebilkion 1963ra arte burutan atera ez bazuen ere. Bere lagun min Andima Ibiñagabeitiari zioenez, eleberriak giharrea eta zaintsua izateko norberari gertatutik edo oso hurretik ikusitako gaiak hartzea bezalakorik ez dago, eta eleberria irakurrita garbi dago poetika honi jarraitu ziola. Idazlan honekin ere gehiengoarengana iritsi nahi du, eta horretarako hautatzen dituen elementu narratiboak tradizionalak dira. Hizkera prosaikoa darabil, eta didaktismoa oso azalean du. Hauek gorabehera, obraren mundu-ikuskerari erreparaturik, irakurzaleak aurkituko du jakingarririk eta gozagarririk bertan.

Anekdotak honakoa: familian eta jaioterrian oso giro estua eta hertsia sufritu du nobelako heroiak, guztien gainetik sexuari dihoakionean. Emakume batekiko harremanek

eramaten dute ordurainoko ikuskerarekin haustera, eta fedearen segurtasuna koloka jartzera. Geroztikoan, zalantzan iraungo du nahigaberik nahigabe.

Nemesio Etxanizek lan asko egin zuen euskararen alde, lan eskergarria. Idazle bezala, nik uste, dohain handiago zituela poesiarako narraziorako baino. Bihotzondoa bazuen. Damurik, euskalgintzak asti gehiegi ostu zion kalitate handiko lan literarioa burutzeko. Baina jakingarria, irakurtzea merezi duena eta eskertzekoa da utzi digun uzta.



Azkoitiko Santa Kutzeko komentuan.